

Izendapenaren onurak baserritarregana ere heltzea da ENBAren helburua

Abian da **EUSKAL SAGARDOA** Jatorri Izendapena



2016ko uztailen sagarra eta sagardoaren inguruko hainbat eragilek Eusko Jaurlaritzarengana jo zuten EUSKAL SAGARDOA Jatorri Izendapenarentzat babesa eta Europako erregistroan sar zezala eskatuz.

Bitartean, urtarilaren 9an, Txotx kanpainaren atarian, Donostiako Kursaal Jauregian aurkeztu zen publikoki eta handik gutxira, ekainaren 5ean, Pasiako Albaola Itsas Kultur Faktorian udara sasoirako botilaratutako sagardoa aurkeztu zen oso ekimen jendetsuan, tarteko, ENBAko ordezkaria.

Ekimen publikoak aurerra zihoazen bezala, Maiatzaren 12an Lakuan Sagardo Mahaia

ospatu zen eta bertan izan ziren nahiz sagar ekoizleak nahiz sagardogile eta proiektuan inplikaturako erakunde guztiak.

Mahaian bertan emandako datua esanguratsuenak hauek lirateke:

- Euskadin 9.211 sagar ekoizle daude baina horietatik 8.828 autokontsumokoak dira eta gainuntzeko artean, 315 ekoizle 1-3 hektarea bitartekoak, 47 3-5 hekt. Bitartekoak eta soilik 21 ekoizle daude 5 hektarea baino gehiago dutenak.
- Euskadin sagar ekoizpenerako 1.246 hektarea daude eta horietatik 1.165 Gipuzkoan daude eta ekoizten den sagardoaren 13.820.000 litroetatik

13.500.000 Gipuzkoan ekoizten dira.

- Euskadin, pertsona eta urteko kontsumoa 3 litrotakoa da eta ekoizten den sagardoaren %90-95 Euskal Herrian bertan kontsumitzen da, batez ere, Gipuzkoan bertan.
- Argi geratzen da, sagardogileen diru-sarreretan Txotxak duen pisua, txotx kanpainan kontsumitzen den apurrak (ekoizpenaren %5-10 bitartekoa) beren dirusarreraren %60-70 suposatzen duenez.

Mahaian ere, argi geratu zen, bertan partehartutako aditu eta teknikarien aldetik, sagardo botila baloritzatzen saiatu behar dutela eta horretarako, behar beharrezkoa dela, hasera haseratik, denok elkarlanean jardutea eta elkarren arteko prezio liskar eta borrokak alboratzea.

Mahaiaren atzenean, ENBAko ordezkariak hartu zuen parte eta sagardoaren ekoizpeneko katebegi ahulena den sagar ekoizpeneko kostu azterketa egin beharrezkoa zela, azken 12 urteotako prezio baxuekin jarraitzea ezinezkoa baita eta bestalde, Izendapenean bertakotasuna azpimarratzen den bezala, txotx kanpainan ere, bertakotasuna mahaira ere eramatea eskatu zen, edaten dena eta zerbizatzen den jakien artean koherentzia egon dadin.

Azkenik, Abuztuaren 4an, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean Euskal Sagardoaren Jatorri Izendapenaren onarpenera argitaratu da eta bitarteko babesa ematen zaio, Europatik behinbetiuko onarpenera etorri bitartean.